

BL_1_GORPUTZ HEZKUNTZA_PROGRAMAZIO_LABURRA

Irakaslea | Eunate Etxaide, Maddi Amiano | Maila | BL-1 MAILA | Ikasturtea | 2020/21

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

Gorputz Hezkuntza derrigorrezko irakasgai bat da, astean bi orduz lantzen dena.

Klase gehienak praktikoak direnez soinketa gelan edo patioan burutuko dira, gelan edo beharrezkoak diren beste eremu batzuetan (frontoia).

Beharren arabera Unitate Didaktiko desberdinen ordena alda daiteke barneko

Gorputz hezkuntzako irakasgaia batxilergoan derrigorrezko ikasgaia da. Astero bi ordu ematen dira.

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

	1	2	3	4	5	6				
1) Hizkuntza komunikazioa.										
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1		1							
3) Gaitasun digitala.	1	2	3	4	5	6				
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6				
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	6				
6) Ekimena eta ekintzailtza.	1	2	3	4	5	6				
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.				4						

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

[BATX CURRICULUMA](#)

1. Ingurune egonkorreko banakako jarduerak.
2. Aurkariaren jarduerak.
- 3.-Lanbidetza-Aurkakotasun jarduerak.
- 4.-Ingurune ez egonkorreko jarduerak
- 5.-Jarduera artistiko-Espresiboak

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

BATX CURRICULUMA

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
11	BADMINTON	11	INDARRA	11	BOLEIBOLA
11	YOGA	11	SORMENA DANTZAN	11	ERRESISTENTZIA (Aerobikoa, Anaerobikoa)

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Unitatearen arabera, atal teorikoa Classroom-aren bitartez bideratuko da.
Batxilergoa izanda, modu autonomoan lan egingo da gehiengo batean eta posible izanik, talde lana eta kideen arteko laguntza bultzatuz.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

Ondorengo ataletan ebaluazio eta errekuperazio irizpideak garatuko ditugu.

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

Atal Teorikoa: 20% (Classroom bidezko lanak, fitxak...)

Atal praktikoa: 40% (Azterketa praktikoa, klaseko praktika, irteerak...)

Jarrerako Atala: 35% + 5% KAKI (Klaseko parte hartze aktiboa, higieena, errespetua...)

KAKI: Ikastetxetik kanpo egiten diren mendi irteerak.

Oharra: Jarrera ataleko nota gainditua ez duenak ezingo du ikasgaia gainditu.

Froga idatzirik ez balego, atal praktikokoak 60% balioa jasoko du.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Unitate didaktiko baten nota: atal teoriko, atal praktikoa eta jarrerazko atalaren batura izango lirateke.

Ebaluazioko nota: unitate didaktikoen noten batzbestekoa izango da.

Ekaineko nota: Hiru ebaluaketen noten batzbestekoa izango da. Eta ezin izango da gainditu bi ebaluazio suspendituta izanez gero.

Gutxiengoak: ikasleak irakasgaia gainditzeko ondoko gutxiengoak bete behar ditu: froga guztietara aurkeztea, eskatutako idatzizko lan guztiak eginak eta aurkeztuak izatea, jarrerako atala gainditua izatea eta frogetan ezarritako irizpideen arabera, bost-eko nota ateratzea.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.
-

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Hurrengo ebaluazioan ikasleak aukera izango du suspenditutako unitate edo ikasgaia berreskuratzeko.

Nahikotasun nota: ikasleak suspenditutako ebaluazioa erreuperatzeko nahikotasun frogak izango du. Froga horretan, suspenditutako arloko frogak egingo ditu.

Ez ohiko deialdian: programazio osoa sartzen da. Irakasleak ikasleari zehaztuko lioke zer nolako frogak egin beharko lituzke.

KANPOKO EBALUAZIOA

Gure ikasgaietan ez dugu kanpoko frogarik.

